



Jean Michel Etchecolona

## EGOERA

Enpleguaren gaia, hainbat arrazoirengatik, pertsona gehienon bizitzan oinarrizko elementu dugu. Dauden arrazoi guztien artean, ziurrenik funtsezko eta agerikoena, enpleguari lotutako ordainsaria geure errenta-iturri nagusia dela izango litzateke. Ordainsari horri esker, ongizate maila onargarrietan geure beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzuak eskuratu ditzakegu. Zentzu horretan, pobrezia-aren aurrean babesteko oinarrizko mekanismoa eta eskusio soziala ekiditeko bide eraginkorra da. Azken hamarkada hauetako ofentsiba neoliberalaren fronte nagusienetako bat, sektore publikoarekiko erasoarekin batera (esku hartze publikoaren desarautzea eta uzurtzea esparru produktiboan zein sozialean), langileek hazkunde ekonomikoaren banaketan geroz eta parte-hartze txikiagoa izatea izan da, soldatak jaitsiz, langabezia

areagotuz eta lan-eskubideetan atzera urratsak emanez.

Euskal Herrian lan-esparruan inongo eskumenik ez izatea erabat kaltegarria da, errentaren banaketan eta kohesio sozialean ez ezik, geure ehun produktiboaren etorkizunari dagokionean ere, prezioen araberako lehiakortasuna eta langile-kopuruak azkar murriztuz malgutasuna lehenesten baititu. Adibide batzuk jartzearren, EAEn 140.000 langabetu baino gehiago dago, horien arteko erdiak baino gehiagok langabezia-saririk jasotzen ez duena; 14.000 pertsona baino gehiagok jasotzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta (RGI gaztelera) enplegua izanik ere eta ia enplegu guztiak (% 96) aldi baterakoak dira, horien erdia hilabete baino gutxiagorako. Beraz, epe luzeko egiturazko langabezia ez ezik, pobrezian dauden enplegudun langileez ere hitz egin beharrean gaude.

## HELBURUA

Gure helburua enplegu-politika osoa ezartzea da, eraginkorra, gizarte aurreratu baten nahiarekin bat datorrena eta gure ekonomia-ehunak etorkizunean irauteko estrategia baten barruan kokatua. Gizarte-justiziaren eta giza garapenaren ikuspegitik, aukera erreal bakarra proposamen sendoak taxutzea da. Horrelakoek, enplegua lehentasunezko helburutzat izateaz gain, gaur egungo garapen-eredu kapitalistaren mugak ere hartu behar dituzte kontuan, bai ingurumenaren zein ekologiaren arloari dagokionez, bai arlo sozialari dagokionez ere. Halaber, erreproduzio-lana ere barne hartu behar dute eta gizarte- eta lan-baldintzak ezarri behar dituzte, lan horri modu kolektibo eta ekitatiboan ekiteko. Enplegu-estrategiak, Euskal Herriko egoera soziolaboralari erantzun nahi badio, asmo handiko jarrera batetik heldu beharko dio erronka zail horri, egoera horren erabateko eraldaketa bilatuz, hain zuzen ere. Hori horrela, hiru esku-hartze lerro hauek proposatu nahi ditugu: enplegua sortzea (publikoa zein pribatu eta kooperatiboa), lana banatzea eta dauden enpleguetan (baita berrietan ere) lan-baldintzak duintzea.

## NEURRIAK

### 1

#### LAN-HARREMANETARAKO EUSKAL ESPARRUA ENPLEGU DUINAK SORTZEKO

Gaur egun, langabezia, prekarietatea eta lan-baldintza kaxkarrak herritarron arazo nagusienetakoak dira. Kriaren azken urteotan, langabezia-tasa altuak betikotzeaz gain, langabezia hori berori erabili izan dute enpresaburuek berehala amaitu beharreko soldata murrizketak egiteko.

EAEk ez duenez lan-merkatua arautzeko eskumenik ez duenez, lan-erreforma desberdinen ondorio kaltegarriak pairatzen ditugu. Horrekin guztiarekin amaitzeko, geurea izango den lan-harremanetarako esparrua sortzeko aukera eskainiko diguten lan-eskumenak berreskuratzea premiazkoa dela deritzogu. Lan-harremanetarako euskal esparruaren helburu nagusia eremu publikoan zein pribatuan lanpostu duin eta iraunkorren sorrera eta banaketa litzateke.

### 2

#### 1.200 EUROKO GUTXIENENKO SOLDATA

Euskal gehiengo sindikalak aldarrikatzen duen bezala, geure inguruko ekonomietako bizi- eta lan-baldintzekin bat datorren 1.200 euroko gutxieneko soldata legez ezartzea proposatzen dugu. Gutxieneko soldata horrek, lehen aipatutako lan-eskumenen berreskuratzearekin batera, lehentasunezko helburu behar du.

Edonola ere, aipatu eskumen horiek lortzen ditugun bitartean, erakunde publikoek langile eta enpresaburuen arteko negoziazio kolektiboan lagundu beharko lukete helburu bereberekin, sektore publikoan 1.200 euroko gutxieneko soldata bermatuko duten klausula sozialak martxan jarritz, sektore publikoarentzat zuzenean edo zeharka lan egiten duten enpresei begira.

### 3

#### ENPLEGUAREN BANAKETA ETA 35 ORDUKO LANALDIA

Enpleguaren banaketa hainbat modutara egin daiteke. Anbizio gehien duena eta interesgarriena aurrerapen sozialaren ikuspuntutik, ekonomia osoan lanaldien murrizketa orokortua proposatzen duena da. Euskal gehiengo sindikalak babesten duen asteko 35 orduen helburua, ez bairik gabe, arrazoizkoa da eta horren adibide dira Suedia edo Danimarka bezalako herrietan lortu duten arrakasta.

Edonola ere, helburu horretarantz pausuak ematen ditugun bitartean, honako neurri hauek aplikatu daitezke: lan-orduen murrizketa, urtea, astea edota eguna erreferentzia-neurri gisa hartuta, edo oporraldia luzatuz; kontratu partzialak arautzea lan-baldintza duinetan; baimen eta eszedentziak (amatasun/aitatasuna, urte sabatikoak, etab.); erretiro aurreratuak, edo progresiboak. Sektore publikoak aipatu neurriak hartzerakoan etengabeko erreferentzia izan behar du.

# 4

## ENPLEGU PUBLIKOA 21 %ERA IGOTZEA: 40.000 LANPOSTU

Gaur egun, enplegu publikoa duten pertsonen kopurua Europako iparraldeko herrien tasetatik oso urrun dago eta, gainera, azken urteotako murrizketa publiko eta sozialek, egoera okertu besterik ez dute egin. Errentagarritasun pribatu soilaren aurrean, enplegu publikoak errentagarritasun sozialeko irizpideen arabera sortu behar dira.

Langile publikoen kopurua Europako batez bestekora hurbiltzea proposatzen dugu honako esparru hauei lehentasuna emanez: ongizate estatua indartu eta handitzea hezkuntza, osasuna eta zerbitzu sozialen esparruan, eta esparru zientifiko-teknologikoan ez ezik, ekonomia jasangarrirako jardueren esparruan ere enplegu publikoa sortzea.

# 5

## SEKTORE PRIBATUAN ENPLEGU EGONKOR ETA DUINA SORTZEKO LAGUNTZA

Erakunde publikoen jarduerak enplegu egonkor eta duinaren sorrera sustatzeari begirakoa behar du. Gainera, ehun produktiboaren eraldaketa estrategikoa helburu, industria teknologikoki aurreratuak eta ekologikoki jasangarriak lehenetsi behar dira ekonomia soziala eta kooperatiboa sustatzeko neurriak ere hartuz.

Horretarako, izaera orokorreko politikak bultzatu behar dira, jarduera produktiboari eutsi eta berau hobetzeko aukera eskainiko duten ingurune-baldintzak sortuz eta enplegurako zuzeneko laguntzak emanez, oinarrian diru-laguntza eta pizgarri fiskal eta finantzarioen bidez.